# GRABATUAREN ARTEA BIDASOAN

# EL ARTE DEL GRABADO EN EL BIDASOA



2024ko urriaren 25etik
abenduaren 8ra

Del 25 de octubre al
8 de diciembre de 2024

Ayuntamiento irun Udala
www.irun.org



Erdi Aroan agertu zenetik, grabatua aukera handiko teknika artistiko bat bihurtu zen. Artelan gisa zuten balioaz gain, grabatuak ilustrazio gisa erabili ziren hainbat diziplinatan; esaterako, kartografian, anatomian, botanikan, zoologian edo historiako tratatuetan. Jatorrizkoaren hainbat kopia atera zitezkeen, estanpazioaren bidez, eta, horregatik, izugarri zabaldu zen. Denboran zehar, garatzen joan zen, teknika eta aldaera berriak gehituz, hala nola grabatu kalkografikoa, xilografia, litografia edo serigrafia.

Bidasoa eskualdea lurralde enblematikoa izan zen grabatuak sortzeko. Bertako udalerriak (Irun, Hondarribia eta Hendaia) mugan zeuden, kokapen estrategiko batean, eta gertaera historiko oso garrantzitsuak gertatu ziren bertan. Horrek guztiak etengabeko inspirazio iturri bihurtu zuen eskualdea.

Erakusketa honek ibilbide historikoa eskaintzen du Bidasoa eskualdean barrena, gorabehera nabarmenenak jaso zituzten grabatuetako batzuen bidez, hala nola, 1638an Hondarribirako setioa, Pirinioetako Ituna, Luis XIV.aren eta Maria Teresa Austriakoaren arteko errege-ezkontza, edo Gerra Karlistak. Eta erabilitako teknikei buruzko aurkezpen bat eginda eta grabatu garaikidearen lagin bat erakutsita osatzen da erakusketa. Azken atal horretan, protagonismoa aldatu egiten da: orain, protagonistak ez dira izango ibaia eta bere historia, Bidasoan lan egin zuten -eta lanean jarraitzen duten- artistak baizik.

Desde su aparición en la Edad Media, el grabado se convirtió en una técnica artística con grandes posibilidades. Además de su valor como obra de arte, los grabados sirvieron como ilustraciones para distintas disciplinas: fue el caso de la cartografía, la anatomía, la botánica, la zoología o los tratados de historia. Al poder sacarse varias copias del mismo original mediante la estampación, su difusión fue mucho mayor. A lo largo del tiempo, se fue desarrollando con la incorporación de nuevas técnicas y variantes, como el grabado calcográfico, la xilografía, la litografía o la serigrafía.

La comarca del Bidasoa fue un territorio emblemático para la creación de grabados. La posición estratégica y fronteriza de sus municipios -Irun, Hondarribia y Hendaya-, la convirtió en un espacio donde tuvieron lugar importantísimos acontecimientos históricos que fueron continua fuente de inspiración.

Esta exposición ofrece un recorrido histórico por la comarca del Bidasoa a través de algunos de los grabados que recogieron los avatares más destacados, como fue el caso del Sitio de Hondarribia en 1638, el Tratado de los Pirineos, la boda real entre Luis XIV y María Teresa de Austria, o las Guerras Carlistas. Se completa con una presentación sobre las distintas técnicas empleadas y una muestra de grabado contemporáneo. En esta última sección el protagonismo se traspasa: ya no serán el río y su historia, sino las y los artistas que trabajaron -y siguen trabajando- en el Bidasoa.





- **Bisita gidatuak / Visitas guiadas**

  **Erreserbak / Reservas:** irunkultura@irun.org

  **De la mano de María José Noain Mauraren eskutik:**
  Azaroak 2 de noviembre, 18:00.
  Azaroak 22 de noviembre, 19:00

  **De la mano de José Luis Noain Cendoyaren eskutik:**
  Azaroak 8 de noviembre, 19:00h
  Abenduak 1 de diciembre, 12:00

- **Familientzako arte tailerrak / Talleres de arte familiares**

  **Izenemateak / Inscripciones:** www.irun.org

  **De la mano de Itsaso Labariren eskutik:**
  Azaroak 9 de noviembre, 17:00
  Azaroak 22 de noviembre, 17:00

## AMAIA KZ

**Ordutegia / Horario**

Asteartetik larunbatera 18:00etatik 21:00etara.
Igande eta jaiegunetan 11:30etik 13:30era.
Astelehenetan itxita.

De martes a sábado de 18:00 a 21:00.
Domingos y festivos de 11:30 a 13:30h.
Lunes cerrado.

Ayuntamiento Udala
irun
www.irun.org